



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko azaroaren 20a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, zainketa aringarrien arloko politika orokorrari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuna Hobetzeko Planean sartuta dauden osasun etxeetako langileen lanbide-profila zehatz dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioetako eskualdetik nahiz Nafarroako Ipar-ekialdetik eta Erdialdetik Iruñeko ospitaleetara joateko garraioa ezartzeari buruzko azterlan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako xaflen errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du funtzionamendu-autonomiarekiko errespetuak gidatu behar dituela autonomia erkidegoetako legebiltzarren arteko harremanak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Gurutze Plazako Institutuko ekitaldi-aretoan zergatik ez dagoen mugikortasun urriko pertsonentzako sarbiderik, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Lizarrako Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Arradako Kontzejuko edateko uraren kalitateari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (14. or.).
- Galdera, Life programari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrianak asetzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (16. or.).
- Galdera, industria hondakinei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2008ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proiektua 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat antzeman da Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruzko erabakian, 2009ko azaroaren 17ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 16. orrialdean argitaratu zena. Hona zuzenketa:

“Aintzat ez hartua” esan ordez, hau esan behar du: “Aintzat hartua.”

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko azaroaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege

proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko abenduaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketa aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Irisgarritasun unibertsalari eta oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Terrorismoaren biktimei laguntzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko irailaren 11ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, zainketa aringarrien arloko politika orokorrari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko jabeldura, zainketa aringarrien arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, Nafarroako Gobernua zainketa aringarrien arloan garatzen ari den politikari buruzko honako jabeldura hau aurkeztu dio Osasun kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Azken 40 urteetan, pertsonen beren bizitzaren amaieran ematen zaien arreta erritmo desberdinetan garatu da. Gaur egun, zainketa aringarriak herritarren eskubideetako bat dira.

Tratamendu sendagarriak eta aringarriak ez dira elkarren baztertzailerik; aldiz, enfasi kontu bat besterik ez da. Hala, gaixotasunak aurrera egin ahal eta gaixoak berariazko tratamenduari erantzuteaz uzten dion heinean, neurri aringarri gehiago aplikatzen dira, neurri horiek proportzioan gehiago izateraino.

Berariazko tratamendua amaitzen denean, behin modu arrazoizkoan agortuta eskuragarri dauden tratamenduak, gaixotasunak aurrera egin duen egoeran sartzen da, eta helburu terapeutikoak bideratzen dira gaixoaren eta haren familiaren erosotasuna sustatzera.

Hona hemen gaixo terminalen terapeutikaren helburuak:

1.- Arreta integrala, alderdi fisikoak, emozionalak, sozialak eta espiritualak kontuan hartzen dituen. Ezinbestean, arreta mota horrek bana-banako eta etengabekoa izan behar du.

2.- Gaixoa eta haren familia tratatu beharreko unitatea dira. Familia gaixoaren laguntza-gune oinarrikoa da, eta garrantzia berezia hartzen du etxetik etxera laguntzaren arloan. Familiak laguntza- eta hezkuntza-neurri berariazkoak behar ditu.

3.- Gaixoaren autonomiaren eta duintasunaren sustapenak izan behar du erabaki terapeutikoen gidari. Printzipio hori gauzatu ahal izan da soilik helburu terapeutikoak "gaixoarekin batera" zehazten badira.

4.- Ikusmolde terapeutiko aktiboa, jarrera errehabilitatzailea eta aktiboa landuko duena, besterik egin ezin izatearen ustea gaindiaraziko diguna; izan ere, horrek, egia ez izateaz gain, ezjakintasuna eta egoera horren aurreko jarrera negatiboa erakusten du.

5.- "Giroaren" garrantzia. Errespetu, erosotasun, laguntasun eta komunikazio giroa izateak eragin erabakigarria du sintomen kontrolean.

Giro hori sortzea osasun arloko profesionalen eta familiaren jarreraren arabera izaten da, bai eta gaixoari segurtasuna eta erosotasuna emanen dieten antolakuntza neurrien arabera ere.

Hori guztia dela eta, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari, azalpenak eman ditzan aplikatzen ari den buru-osasunaren arloko politikari buruz eta hurrengo urteetan hartuko dituen neurri- edo jarduketari buruz.

Iruñean, 2009ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuna Hobetzeko Planean sartuta dauden osasun etxeetako langileen lanbide-profila zehatz dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasuna Hobetzeko Planean sartuta dauden osasun etxeetako langileen lanbide-profila zehatz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Plana osasun publikoko antolamenduaren eta lanaren alorrean egin den proposamen egokienetako bat dugu.

Nabarmendu behar da sorturiko lan batzordeak egin duen ahalegin izugarria profesional guztien talde-lanaren ikusmolde berria lortzeko, bai eta osasunaren arloko arduradunen jarrera ere, prest baitago sistema hori foru erkidegoko zenbait osasun etxetan abian jartzeko, modu esperimentalean.

Azkenik, beharrezkoa da oinarrizko osasun laguntzako profesionalen lana aitortzea, gaixoen

osasun txartel kopuruak egokitzea eskatzen baitute, lana modu egokian egin ahal izateko. "Plataforma 10 minutos" ekimenak eginiko lana islatu da Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Plana prestatzeko konpromiso horretan. Eta Osasun Departamentuak ulertu du badela garaia profesionalen eskaerei erantzuteko eta ezarritako hitzarmena kontuan hartzeko.

Aurreikuspenen arabera, plana pixkanaka hedatuko da foru erkidegoko beste osasun etxetara; hala ere, denbora honetan izandako esperientziak iradokitzen du zenbait gauza kontuan hartzea, lan hori modu egokian egin ahal izateko.

Erabaki proposamena:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasuna Hobetzeko Planean sartuta dauden osasun etxeetako langileen lanbide-profila zehatz dezan. Izan ere, langile horien mugikortasunak zaildu egiten du kasuan kasuko osasun etxeko taldean lan egitea, proiektuaren eraginkortasuna lortze aldera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010ean hasi ditzan osasun etxeetako administrazio-arloko egokitzapen lanak, eta telefonia egokitu dezan zerbitzuaren beharretara, lan egiteko modu egokia ezartze aldera, betiere mantenduta artatutako gaixoen pribatutasuna, beharrianen arabera, eta langileen hitzorduak ebatzeko arintasuna.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu eskaintza publiko bakarra egin dezan oinarrizko osasun laguntzaren arloan, profesional medikoen eskaera sor daitezkeen beharrianetara egokitu ahal izateko eta oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuetan behin eta berriro deialdiak izatea ekiditeko, horrek herri-tarren eskaerei erantzutea atzeratzen baitu.

Iruñean, 2009ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioetako eskualdetik nahiz Nafarroako Ipar-ekialdetik eta Erdialdetik Iruñeko ospitaleetara joateko garraioa ezartzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pirinioetako eskualdetik nahiz Nafarroako Ipar-ekialdetik eta Erdialdetik Iruñeko ospitaleetara joateko garraioa ezartzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioetako eskualdetik nahiz Nafarroako Ipar-ekialdetik eta Erdialdetik Iruñeko ospitaleetara joateko garraioa ezartzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

Zioen azalpena

Erkidegoko herritar askok etorri behar izaten dute egunero –beren kabuz, horrek dakarren kostuarekin– Nafarroako beste leku batzuetatik, Pirinioetatik, Ipar-ekialdetik edo Erdialdetik esate baterako, Iruñeko ospitaleetara, erradioterapia eta

kimioterapiako tratamenduak jasotzera edo espezialista baten kontsultara.

Sozialistok beti defenditu dugu Iruñetik urrun biziak ez duela oztopo izan behar kalitatezko osasun zerbitzua eman dadin, Foru Komunitateko herritar guztientzat baldintza beretan. Nafarroako herritar askoren arazo hori oso erraz konpon liteke, garraio zerbitzu doako eta egokitua jarrita Iruñeko ospitale eremura.

Alderdi sozialistak mozio bat aurkeztu zuen, eta haren bidez abian jarri zen ospitaleen arteko garraio zerbitzu bat, erreferentziazko ospitaletzat eskualdeko ospitale bat (Tuterakoa eta Lizarrakoa) duten pertsonen Iruñeko edozein ospitalera joan ahal izateko, beharrezkoa dutenean. Garraio zerbitzu horren funtzionamendua ebaluatu beharko da eta aztertu beharko da zerbitzu hori Nafarroako beste eskualde batzuetan ezartzeko aukera; izan ere, eskualde horiek ez daude eskualdeko ospitale bati atxikita, baina bertako biztanleek zailtasun handiak dituzte Iruñeko ospitaleetara joateko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua, zehazki Osasun Departamentua, premiatzen du:

1. 2009ko uztaillean abian jarritako ospitale arteko garraio zerbitzuaren funtzionamendua ebalua dezan.

2. Pirinioetako eskualdetik nahiz Nafarroako Ipar-ekialdetik eta Erdialdetik Iruñeko ospitaleetara joateko garraioa ezartzeari buruzko azterlan bat egin dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, 2009ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi zuen urriaren 30eko 11/2009 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno

natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzkoa.

Lege horren beraren 1. artikulua honakoa ezartzen du:

“Foru lege honen xedea da laguntza- eta onura-neurriak ezartzea 2009ko otsaileko uholdeek eta ekainaren 30eko txingor ekaitzak –nagusiki Valdegako dermioetan eta Metautengo bailaran, eta Allingo eta Ameskoako eskualdeetan–, bai eta hurrengo urteetan Nafarroako Foru Komunitatean antzeko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kaltetuta izan litezkeen pertsona fisiko nahiz juridikoentzat.”

Hala ere, artikulua horretan ez dago sartuta 2009ko maiatzaren 24an izandako txingor ekaitza, zeinak kalteak sortu baitzituen Lodosan eta Sartagudan, bereziki.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen du 2009ko maiatzaren 24an izandako txingor ekaitzak, zeinak kalteak sortu baitzituen Lodosan eta Sartagudan bereziki, kaltetutako pertsona fisikoek eta juridikoek laguntza jaso ahal dezaten, aipatu foru legearen esparruan aintzat hartutako pertsonen baldintza beretan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kaltetu horiei laguntza eman diezaien, aipatu foru legean ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan Kultur Bonoaren programa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta onets dadin. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa.

Zioen azalpena

Espainiako Konstituzioaren 44. artikuluan ezarritzen da botere publikoek kultura eskuratzea bultzatu eta babestuko dute, guztiek baitute kulturarako eskubidea, adina eta bizitokika kontuan hartu gabe. Konstituzioaren 48. artikuluan espresuki agintzen zaie botere publikoei behar bezalako inguruabarrak bultzatu ditzatela gazteriak garapen kulturalean parte-hartze aske eta eragingarria izan dezan.

Bestetik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.8 artikulua araberan, Nafarroako Komunitateak eskumen osoa dauka kulturaren arloan, Estatua-rekin koordinatuta, eta lege bereko 44.18 artikuluan jasotzen da Nafarroak eskumen osoa duela

komunitatearen garapenaren eta gazteriar buruzko politikaren arloan.

Espainian eta Nafarroan nabarmenki somatzen den mundu mailako krisialdi ekonomikoaren ondorioz, gobernuek zenbait neurri hartu dituzte krisiaren eragina arintze aldera. Neurri horien artean, Nafarroako Gobernuak zenbait ekimen jarri ditu abian, kontsumoa bultzatzeko, bereziki kaltetutako sektore jakin batzuentzako pizgarri gisa.

Gehien kaltetutako sektoreetako bat da kultur kontsumoarekin loturikoa, bereziki nabaritzen baititu gorabehera ekonomikoak eta beharizan premiazkoenak lehentasunez asetzeko beharra. Hori dela eta, kontsumoa handitzeko eta sektorea pizteko beharra arrazoizko helburua da gaur egungo egoeran.

Herritar guztietatik, gazteen sektorea bereziki ahula da. Horrenbestez, musika, dantza eta antzerkirako publiko berriak sor daitezela sustatzea, liburua eta irakurketa bultzatzea, ondarea erakusketa eta museoen bidez ezagutzera ematea eta arte garaikidea sustatzea helburu arrazoizko eta koherenteak dira, eta horri erantsi behar zaio sektorearen dinamizazioa, bereziki gazteen arloan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010an abian jar dezan "Kultur Bonoaren" programa, ondoren ezarritako prozedura eta printzipioen arabera.

2. Programaren oinarritzko helburua: Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta gazte txartela duten 18 eta 26 urte bitarteko gazteei erraztea foru erkidegoko kultur ondasunak eta eskaintzen diren zerbitzuak eskuratzea, hala eskatzen badute.

3. Hauek izanen dira neurriaren onuradunak, aldezturik Kultura eta Turismo Departamentuari jakinarazi ondoren:

– Nafarroako kultur etxeetan programatzen diren barne-ikuskizun artistiko guztiak, ordaintze-koak badira.

– Baluarteko programazioko ikuskizun guztiak.

– Iruñeko Gayarre Antzokiko, Barañaingo Auditorioko, Tuterako Gaztambide Antzokiko eta Nafarroako Antzerki Eskolako berariazko programazio-ko ikuskizun guztiak.

– Nafarroako liburu-denda guztiak, bertan liburu-ruen salmentak negozioaren % 90 egiten badu. Bazter geratuko dira saltoki orokorretako eta saltokik handietako liburuen atalak.

– Nafarroako musika areto egonkorren barnean programaturiko ikuskizunak, non artista profesionalek musika emanaldia eskainiko baitute zuzenean, betiere sarreraren prezioan ez bada sartzen edari bat hartzeko eskubidea.

4. Programaren ezaugarriak: “Kultur Bonoa” taloitegi edo txartel elektronikoa bat izanen da, pertsonala eta besterenezina, eta doan eskuratu ahal-ko da. Taloitegi edo txartel bakoitzak 25 euroko kostua izanen du gazte onuradun bakoitzarentzat, eta ahalbidetuko dio 50 euroko produktuak edo zerbitzuak eskuratzea. Beraz, Foru Komunitateko Administrazioak falta diren 25 euroak jarriko ditu, kultur kontsumoa sustatze aldera.

Kultur Bonoak balioa izanen du ezartzen dene-tik 2010eko abenduaren 31ra arte, eta indarrean egonen da 2010eko Nafarroako aurrekontu orokorretan horretarako bideratzen den kontusailean dirua dagoen bitartean.

5. Bateragarritasuna: Kultur Bonoak bateragarria izan beharko du gazte txartelean eta bezeroaren leialtasuna lortzeko bestelako baliabideetan jasotako ohiko deskontuekin. Saltokietan NANA eskatu ahal-ko dioten Kultur Bonodunari, bai eta salmenta ukatu ere, baldin eta tarteko pertsona batek egiten badu. Deialditik kanpo geratuko da honakoen salmenta: CDak, DVDak, programa informatikoak, bideojokoak eta antzekoak.

6. Programa betetzea: “Kultur Bonoa” Kultura eta Turismo Departamentuak kudeatuko du, zehazten den prozedurari jarraikiz.

7. “Kultur Bonoaren” programak indarrean egon beharko du 2010eko apirilaren 1ean, erregelamendu bidez zehaztuko diren xedapenei jarraikiz.

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Eledunaren ondokoa: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako xaflen errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean.

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu euskalduneko errepideetako xaflen errotulazio elebiduna dela-eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen duena bete dezan, gehienez ere hilabeteko epean”.

Legebiltzarreko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak 2009ko ekainaren 17an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du funtzionamendu-autonomiarekiko errespetuak gidatu behar dituela autonomia erkidegoetako legebiltzarren arteko harremanak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du funtzionamendu-autonomiari zor zaion errespetuaren izenean, zeinak gidatu behar baititu autonomia erkidegoetako legebiltzarren arteko harremanak, ezin dela kontuan hartu edo salatu gabe utzi xantaia demokratikoa egiteko ahalegin oro.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du lurralde desberdinetan erabakiak hartzeko eta ordezkaritza politikoa gauzatzeko ezarrita dauden legeko prozedurei gorde behar zaien errespetuak ezin

duela eraginik izan alderdi politikoei dagokien ordezkaritza demokratikoan.

3. Nafarroako Parlamentuak, ordezkatzeko dituen herritarren eta lurralde ordezkaritza sistemaren funtzionamendu egokiaren defentsan, aldarrikatzen ditu legebiltzarren arteko leialtasun instituzionalaren printzipioa eta Senatuak lurralde ordezkapenaren printzipioarekiko errespetua, bai eta alderdi politiko guztiek senatari autonomikoak izendatzeko duten autonomiarekiko errespetua ere, halako moduz non inolako gehiengo politikok ezin izanen baitu autonomia hori urratu.”

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Gurutze Plazako Institutuko ekitaldi-aretoan zergatik ez dagoen mugikortasun urriko pertsonentzako sarbiderik.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Gurutze Plazako Institutuko ekitaldi-aretoan zergatik ez dagoen mugikortasun urriko pertsonentzako sarbiderik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan hartuta 2009an gaudela, XXI. mendean, zergatik ez dago mugikortasun urriko pertsonentzako sarbiderik Gurutze Plazako Institutuko ekitaldi-aretoan?

Iruñean, 2009ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Lizarrako Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Santo Domingo zahar-etxeari buruzko galdera.

Zure departamentuak gutxi gorabehera zein epetan konponduko du Lizarrako Santo Domingo zahar-etxeko egoiliarren lekualdatzea?

Iruñean, 2009ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Arradako Kontzejuko edateko uraren kalitateari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Arradako Kontzejuko edateko uraren kalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

Iragan azaroaren 9an, hauxe irakur zitekeen Arradako kontzejuko udal bando batean: "Ura ez da edateko egokia". Jakina da kontzeju horretako urak sarritan izaten dituela uhertasun arazoak; are gehiago, batzuetan ez dira bete kalitateari buruzko adierazleen parametroak.

Egoera horren aurrean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak hau jakin nahi du:

– Zein da Arradako kontzejuko herritarren egoera, bertako ur edangarriaren kalitateari dagokionez?

– Osasun Departamentuak edo Nafarroako Gobernuak beste departamenturen batek ba al du asmorik zerbait egiteko egoera hobetze aldera?

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Life programari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Life programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak proiekturik aurkeztu al du Life programarako? Hala ez bada, zergatik ez da proiekturik aurkeztu 2009ko deialdirako?

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrianak asetzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrianak asetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Aurtengo martxoaren 25ean, Altsasuko zahar etxeko patronatuak eskabide bat igorri zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentura, Aita Barandiaran zahar etxeko teilatua konpontzeko eskatuz. Horretaz gain, idatzian ondokoa esaten zen: “..zain gaude noiz aurreikus-

ko ote den ohe artikulatu elektrikoaren eta haiei dagozkien mahaitxoaren hornidura”

2008an 37 aulki artikulatu eskatu zituzten, eta aurrekontuekin zerikusia zuten arrazoiengatik, 5 bakarrik eman zitzaizkien; beraz, 32 aulki gertzen dira emateko. Aurtengo urtarrilean, Prebención Navarrak Autobabeserako Plana egin zuen, zeinetan gomendatzen baita zahar etxeko korridoetako ateek suteen aurkako babes sistema izan dezaten, sute bat izanez gero egoitza sektoretan banatu ahal izateko. Azkenik, iragarritako seinale analogikoaren itzaltzea dela-eta, egoitzako telebistak ez daude egokituta lurreko telebista digitala hartzeko –1991ekoak dira–, eta ez dute egokigailurik onartzen. Hori dela eta, urte honen amaierarako egoitzako telebista guztiak aldatu beharko liriteke, hau da, 32 telebista logeletarako eta 2 telebista handi egongelarako.

Gaur egun, egia da teilatua konpondu dela, baina egia da baita ere eraikina Nafarroako Gobernuarena dela, Altsasuko Udalak zahar etxeko patronatuaren bidez kudeatzen badu ere. Hori dela eta, zure departamentuak dauka materialari dagokion ororen ardura.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Noiz beteko ditu zure departamentuak aipatutako beharrianak, kontuan hartuta horietako batzuk departamentuak berak eskatzen dituen betekizunak direla?

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ultzaman, Anuen, Atetzen eta Odietan gertatzen den moduan, ur-horniketa ez dago bermatuta zenbait agorraldietan. Iragan udan eskualde horretako zenbait herritan ur-murrizketak eta ur-etenak izan dituzte, euri faltaren ondorioz.

Badira zenbait proiektu ibar horien ur-horniketa etengabea ziurtatzeko. Zehazki, Iruñerriko Mankomunitateak proposatu zuen ur-horniketa Eugitik edo Itoiztik egitea zuzenean, baina gaur egun proiektu hori erabat geldituta dago.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak azaldu al dezake zergatik?

2. Gobernua beste aukera batzuk aztertzen ari al da, hala nola ur-horniketa goi-ibarretik egitea?

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoan jasotzen da planaren betetze-mailari eta aurrekontuari buruzko adierazleak laburpen-taula, ardatzen eta ardatz bakoitzeko jardura-ildoen arabera antolatuta. Aipatu Plan Teknologikoaren garapena aztertu ahal izateko, hau jakin nahiko nuke:

1.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 1. ildoari?

2.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 2. ildoari?

3.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 3. ildoari?

4.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 4. ildoari?

5.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 5. ildoari?

6.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 6. ildoari?

7.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 7. ildoari?

8.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 8. ildoari?

9.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011

urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 9. ildoari?

10.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 10. ildoari?

11.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 11. ildoari?

12.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 12. ildoari?

13.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 13. ildoari?

14.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoaren 14. ildoari?

15.- 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako zer kontusail dagozkio 2008-2011 urteetarako Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoa ezagutarazteko eta bertan jasotako prestakuntza ekintzetarako jarduera-ildoei?

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa
Imaz

Galdera, industria hondakinei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, industria hondakinei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, industria hondakinei buruzko honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak ba al daki industria hondakinak isurtzen ari direla nekazaritzako lurra ongarrizteko?

2. Nafarroako Gobernuak ba al daki nolako industria hondakinak eta zer lursailetan isurtzen ari diren? Egin al du azterketarik?

3. Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake industria hondakinek ez daukatela ez metal astunik ez osasunarentzat kaltegarria den bestelako materialik?

4. Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake nekazaritzako lursailetan isurtzen ari diren industria hondakin guztien jatorria?

5. Nafarroako Gobernuak ba al daki nekazaritzako ongarririk gisa erabiltzeko industria hondaki-

nak beste autonomia erkidego batzuetara eramaten ari direla? Hori baimenduta al dago? Baimenen kopia jaso nahiko nuke.

6. Foruzaingoak eta Ingurumen Zerbitzuak egin al dute urratsik gai horri buruz? Eginiko zuzemenean kopia eskuratu nahiko nuke. Ba al da zehapen-espeditierik? Haren kopia eskuratu nahiko nuke.

7. Zer espediente izapidetu dira edo izapidetzen ari dira industria hondakinak nekazaritzarako ongarririk gisa erabiltzea kudeatzeko?

8. Zer baimen du Agringes, S.L. enpresak hondakinak kudeatzeko eta hondakin horiek nekazaritzarako ongarririk gisa erabiltzeko? Baimen horien kopia eskuratu nahiko nuke.

9. Nola ziurta dezake Nafarroako Gobernuak industria hondakin ez-arriskutsuei ez zaizkiela nahasten hondakin arriskutsuak, ondoren nekazaritzako ongarririk gisa erabiltzeko, hondakinak isuri eta berehala lurra lantzen bada eta ez bada inolako azterketarik egiten?

10. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eman al du isurketa horiek egiteko baimenik? Jakin nahiko nuke Nafarroako Gobernuak noiz jakinarazi dion Ebroko Konfederazio Hidrografikoari hondakinak erabiliko zirela nekazaritzako ongarririk gisa? Jakinarazpenaren kopia jaso nahiko nuke. Agringes, S.L. enpresaren praktikei buruzko jakinarazpenaren kopia jaso nahiko nuke.

11. Nafarroako Gobernuko departamenturen batek jaso al du praktika horiei buruzko salaketarik? Salaketa horien kopia eskuratu nahiko nuke. Ireki al da zehapen-espeditierik salaketa horien ondorioz? Zehapen-espeditierik ez irekitzeko txosten juridikoak jaso nahiko nituzke.

12. Egin al da industria hondakinekin eginiko praktika horien maparik edo zehaztu al da praktika horien eraginpeko eremurik?

Iruñean, 2009ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan martxoan, Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak eginiko ebaluazioen eta urteko balorazioen kopia eskatu zuen parlamentari honek (PES 080/09). Baina Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak ondokoa erantzun zuen 2009ko apirilaren 14an: "III. Enplegu Planaren luzapena iragan abenduaren 31n agortu zenez, oraindik ez dago planaren ebaluazioari buruzko agiririk".

Urriaren 9an, hau da, Enplegu Plana amaitu zenetik 9 hilabete iragan eta gero, berriro eskatu nuen ebaluazioen eta urteko balorazioen kopia, halakorik balego, bai eta aipatu batzordeak eginiko ebaluazioaren eta azken balorazioaren kopia ere (7-09/PEI-00251). Eskaera horri erantzunez,

Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eledun Alberto Catalán Higuera jaunak erantzun zuen, 2009ko azaroaren 2an, Parlamentuak eskatutako informazioa prestatzen ari direla eta ahalik eta lasterren igorriko dutela Parlamentura.

Hori dela-eta, haxe jakin nahi dut:

a) Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egin al du plan horren ebaluazio eta baloraziorik 2005erako? Egin bada, ebaluazio eta balorazio horren kopia jaso nahiko nuke.

a) Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egin al du plan horren ebaluazio eta baloraziorik 2006rako? Egin bada, ebaluazio eta balorazio horren kopia jaso nahiko nuke.

a) Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egin al du plan horren ebaluazio eta baloraziorik 2007rako? Egin bada, ebaluazio eta balorazio horren kopia jaso nahiko nuke.

a) Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egin al du plan horren ebaluazio eta baloraziorik 2008rako? Egin bada, ebaluazio eta balorazio horren kopia jaso nahiko nuke.

e) Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapen amaitu eta 11 hilabete iragan direnean, zergatik Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak ez du egin oraindik aipatu planaren ebaluazioa eta azken balorazioa?

f) Noiz emanen du aipatu batzordeak Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioa eta balorazioa?

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2008ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2008ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2005-2007 urteetarako Nafarroako III. Enplegu Planaren –2008ra luzatua izan da– atal batean zehazten ziren urtero aurrekontuetan plan horretarako bideratuko ziren diru-kopuruak.

2009ko otsailaren 9an, Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunak Nafarroako IV. Enplegu Plana sinatu zuenean, Nafarroako Gobernuak esan zuen Enplegu Planak 158,1 mili-

oi euroko aurrekontua izanen zuela 2009rako, eta, horren ondorioz, Nafarroako III. Enplegu Planak 2008rako zuen aurrekontua –145,4 milioi euro– baino % 8,7 handiagoa izanen zela.

Parlamentari honek (7-09/PES-00276) galdera idatziaren a) letran galdetu zuen ea Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta zenbatekoa– hartu ziren kontuan Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenaren barruan 2008ko ekitaldirako. Galderaren erantzunean, hasierako aurrekontuaren eta ez egiaz betetakoaren datuak erabiltzeaz gain, emandako datuetatik ondorioztatzen den azken zenbatekoak 33.989.505 euro egiten ditu, guztira. Hala ere, 2009ko otsailean, Gobernuak esan zuen 2008an 145,4 milioi euro erabili zirela Enplegu Planerako.

2008ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrak aurkeztu direnez, eta parlamentu honi emandako erantzunaren arabera ez dugunez ezagutzen zeintzuk diren 2009an Enplegu Planera bideratutako kontusailak, 111 milioitik gora egiten dutenak, hauxe jakin nahiko nuke:

a) 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta azkenean betetako zenbatekoa– hartu dira kontuan Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenaren barruan?

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

2005-2007 urteetarako Nafarroako III. Enplegu Planaren –2008ra luzatua izan da– atal batean zehazten ziren urtero aurrekontuetan plan horretarako bideratuko ziren diru-kopuruak.

2009ko otsailaren 9an, Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunak Nafarroako IV. Enplegu Plana sinatu zuenean, Nafarroako Gobernuak esan zuen Enplegu Planak 158,1 mili-

oi euroko aurrekontua izanen zuela 2009rako, eta, horren ondorioz, Nafarroako III. Enplegu Planak 2008rako zuen aurrekontua –145,4 milioi euro– baino % 8,7 handiagoa izanen zela.

Parlamentari honek (7-09/PES-00276) galdera idatziaren b) letran galdetu zuen ea 2009ko Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta zenbatekoa– hartu ziren kontuan 2009-2012 urteetarako Nafarroako IV. Enplegu Planaren barruan, 158,1 milioi eurora iristeko. Galdera horren erantzunean, emandako datuetatik ondorioztatzen den azken zenbatekoak 89.019.156 euro egiten ditu, guztira. Hala ere, 2009ko otsailean, Gobernuak esan zuen 2009an 158,1 milioi euro erabiliko zirela Enplegu Planerako.

Parlamentu honi emandako erantzunaren arabera ez dugunez ezagutzen zeintzuk diren 2009an Enplegu Planera bideratutako kontusailak, 69 milioitik gora egiten dutenak, parlamentari honek beharrezkoa ikusten du lehen eginiko galdera bera egitea:

b) 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrerako zer kontusail –aurrekontu-kodea, izena eta zenbatekoa– hartu dira kontuan 2009-2012 urteetarako Nafarroako IV. Enplegu Planaren barruan, iragarritako 158,1 milioi euroko kopurura iristeko?

Iruñean, 2009ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboei buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko azaroaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren bulegoak eginiko hurrengo txostenaren berri izan duela: "Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboei buruzko txosten berezia".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboei buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (22. or.).
- II. Kanpoko publizitatearen ezaugarriak (23. or.).
- III. Edari alkoholduen kanpoko publizitateari buruzko arau-esparrua, adingabeei dagokienez (24. or.).
 1. Estatuko legedia (24. or.).
 2. Autonomia Erkidegoetako legedia (24. or.).
 3. Legez ezarritako debekuen berrespen judiziala (25. or.).
 4. Foru legedia (26. or.).

IV. Ondorioak (27. or.).

V. Ukitutako nafarroako gobernuko departamentuen entzunaldia (27. or.).

VI. Iradokizuna (27. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36,2 artikulua arabera, egitateen garrantziak horretarako bide ematen duenean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ezohiko txosten bat edo txosten monografiko bat, txosten berezia ere esaten zaiona, aurkeztu ahalko dio Nafarroako Parlamentuari.

Halaber, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14.3 artikulua Nafarroako Arartekoari esleitzen dio haurren eta nerabeen eskubideak babesteko eginkizuna. Eginkizun hori gauzatzen da aipatutako artikuluan izendatzen diren neurriak hartzean.

Lege agindu horien esparruan, Nafarroako Arartekoak bultzatu du Edari alkoholduen kanpoko publizitateari eta hark adingabeengan dituen ondorio negatiboei buruzko txosten berezi hau egin dadin.

Ongi egiaztatuta dago eta ezaguna da gazteek, gazte-gaztetatik, edari alkoholduen kontsumitzeko daukaten joera. Joera horrek azken hamarkadan kezkatzeko moduko tamaina hartu du. Edari alkoholduen establezimendu eta toki itxietan kontsumitzeko debekuaren aurrean, gauza orokor bihurtu da produktu horiek kalean kontsumitzea. Horrek "botilatzarra" deitutako fenomenoak ekarri du. Adingabeek edari alkoholduen kontsumitzeko joera funtsean zor zaio kontsumo horrek berarekin dakarren irudiari, zeina arrakasta sozialarekin, dibertitzearekin, aisiarekin, modernitatearekin eta abarrek lotzen baita. Eta zalantzagabea da, era berean,

edari alkoholunen publizitateak, oraindik ere legez baimenduta dauden bideetatik edozein erabiliz, irudi horiek indartu nahi dituela, nahiz eta, nabarmena den bezala, errealitatearekin bat etorri ez.

Foru erkidegoko legegileak, hori guztia ongi baitzekien, Adingabeen edari alkoholunen kontsumoari aurrea hartu eta hura mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldarrikatu zuen, eta haren bidez edari alkoholunen zuzeneko eta zeharkako publizitatea debekatu zuen aldizkako argitalpenetan eta irrati nahiz telebistako programetan. Halere, ez zuen ezer ere ezarri kanpoko publizitateari buruz. Eta kanpoko publizitatea zilegi izate hori –Nafarroan eskuragarri dagoen publizitate-bide gutxietako bat da gazteak edari alkoholunak kontsumitzera bultzatzeko mezuak transmititzen dituen–, edari alkoholunen ekoizleak eta banatzaileak erabili egiten dute.

Horrenbestez, txosten honen helburuak kanpoko publizitatea izanen du ardatza; hau da, bide publikoetako iragarkien bitartezko publizitate estatikoa eta hark adingabeengan dituen eraginak. Izan ere, uste dugu Nafarroan gaur egun publizitate horretarako arau murriztaileak behar direla.

Gaur egun gure estatuan indarra duen antolamendu juridikoarekin alderaketa-azterlana egin ondoren eta foru legedia bera eta legedi horrek gai honetan dituen gabeziak aztertu ondoren, hauxe da txosten honekin lortu nahi dugun helburua: erakunde honen bereizgarria den sentsibilitatearekin eta zuhurtasunarekin iradokizunen bat egitea adingabeek edari alkoholunak edatea dela-eta prebentzio-lana egiteko eta adingabeek edari horiek gutxiago edateko, halako moduan non haurrak eta nerabeak hobeki babestuta egonen diren edari alkoholunen kanpoko publizitatearen aurrean. Horren azken helburua da –hala izan behar baitu– adingabeen babes juridikoko maila hobetzea, Konstituzioaren arabera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera eta haurrak eta nerabeak babesteko estatuko eta foru erkidegoko legediaren arabera.

II. KANPOKO PUBLIZITATEAREN EZAUGARRIAK

Kanpoko publizitatea da eremu publiko irekietan erakusten dena; hau da, kaleetan, plazetan, parkeetan, errepideetan eta gainerako hiriko eta hirien arteko bide publikoetan, hesien, panelen, seinaleen eta kanpoko publizitaterako bestelako euskarrien bitartez –esan daiteke, toki publiko irekietan publizitatea jar daitekeen toki guzti-guztiak direla–. Publizitate horren hartzailea zehaztu gabeko eta bereizi gabeko jende-multzoko bat da, horien artean, noski, adingabeak.

Kanpoko publizitatea eguneko hogeita lau orduetan eta urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetan indarrean dagoen publizitate-bide bat da. Hasteko, pertsona guzti-guztiei zuzenduta dago eta berariaz inori ere ez, baina haren ikuspegi pentsatuta egon daiteke biztanleriaren segmentu batzuetan eragina izateko eta haiek erakartzeko; horien artean, adingabeak daude, gaur egun beste bide edo publizitate-teknika batuen bitartez limurtzen zaila edo ezinezkoa den jende-segmentu bat. Izan ere, edari alkoholunen publizitatea debekatuta dago edo oso murriztuta dago bide gehienetan (gazteentzako argitalpenak, telebista, irrati, kirol barrutiak, ikastetxeak, adingabeak joan ohi diren toki edo ekitaldiak edo adingabeak zuzendutakoak eta abar). Hala eta gutiz ere, adingabeen segmentua edari alkoholunen ekoizle eta banatzaileak beren publizitatearen plangintza egiterakoan oso kontuan hartzen duten balizko bezero-multzoa da.

Kanpoko iragarkiarekin balioa gehien determinatzen duten faktoreetako bat da haren kokapena, hau da, jarrita dagoen biztanle guinea, bai eta kokatzen deneko kalea, espazioa edo bide publikoa. Ekoizleen eskakizun ohikoenetako bat da iragarkia gehien erabiltzen diren bide eta espazio publikoetan jartzea, saihezbideetan eta joan-etorri gurariko hiri errepideetan, guneko historikoetan edo merkataritza-guneetan, ikastetxeetatik hurbil eta abar. Hau da, pertsona askok, eta horien artean adingabeek, iragarkia ikusi eta haren mezua eragina jaso dezaketen tokietan.

Azken urteetan, merkatuan beren osagaiengatik eta aurkezpenarengatik gazteen artean merkaturatzeko diseinatuta dauden edari alkoholun batzuk agertu dira. Madrilgo Erkidegoko Drogaren aurkako Agentziak eginiko azterlanen arabera, egiaztatu da edari alkoholunen kanpoko publizitatearen ehunekoak nabarmen egin duela gora (zazpi aldiz handiago da) institutuetatik, ikastetxeetatik eta gazteak maiz joaten diren tokietatik hurbil dauden tokietan, beste toki edo esparru batzuekin alderatuta. Izan ere, toki estrategiko horietan jarritako kanpoko publizitateak eragin handia izaten du adingabeengan. Horri dagokionez, hezitzaileak eta soziologoak bat datoz esaterakoan publizitateak eragin nabarmena duela nerabeen buruetan. Beste azterlan batzuekin egiaztatu da edari destilatuetatik direla kanpoko publizitatera gehien iragartzen direnak.

Nolanahi ere, kanpoko publizitatearen kostu txikia dela eta, bereziki erakargarria izan daiteke adingabeengan eragina izan dezaketen kanpainak egiteko; helburu hori, edari alkoholunei dagokienean, lege ezinezkoa da beste publizitate-bide batzuk hautatuz gero.

III. EDARI ALKOHOLDUNEN KANPOKO PUBLIZITATEARI BURUZKO ARAU-ESPARRUA, ADINGABEEI DAGOKIENEZ

1. ESTATUKO LEGEDIA

Espainiako 1978ko Konstituzioak, 20.4 artikuluan ezarri zuen edozein difusio-bidetatik komunikatzeko eta egiazko informazioa libreki jasotzeko eskubideak honakoa duela muga gisa, besteak beste: gazteak eta haurrak babestea. Bestalde, 39.4 artikulua ezartzen du umeei nazioarteko itunetan ezarritako babesa izanen dutela, itunok haien eskubidea zaintzen dituzten neurrian.

Konstituzioaren agindu horietatik adingabeen babesari buruzko berariazko legediak heldu dira. Hartara, gure antolamendu juridikora ekarritako nazioarteko arauetatik, Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa aipatu beharra dago. Espainiak konbentzio hori berretsi zuen, 1990eko azaroaren 30eko tresnaren bitartez. Eta barneko zuzenbideari dagokionez, funtsean, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aipatu behar da, batez ere. Izan ere, hartan, adingabearen eskubideak xehetasun askorekin ezarri ondoren, adingabeak babesteko sistemak arautzen dira, baina lege zibil eta prozesalei dagozkien alderdietan; alderdi administratiboak, berriz, autonomia erkidegoen eskumenetarako uzten ditu. Horrenbestez, ez du ezer ere arautzen adingabeei zuzendutako publizitateari buruz.

Publizitatearen esparrura jaitsita, nahitaez aipatu beharra dago Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorra. Alabaina, lege horrek ere ez du atal edo agindu berariazkorik haurrei eta nerabeei zuzendutako publizitateari buruz. Hala eta guztiz ere, haren 8. artikuluari jarraituz, edozein bidetatik eginiko publizitatea –kanpoko publizitatearen bidetik eginikoa ere bai– legez kanpoko izanen da, baldin eta haurrak eta nerabeak babesteko Konstituzioko eskubidea urratzen badu, eta aukera bat jasotzen da autonomia erkidegoek eta udalek bide publikoetan edari alkoholodunen publizitatea debeka dezaten.

2. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO LEGEDIA

Publizitateari buruzko Lege Orokorra oraindik ere ez da erregelamendu bidez garatu. Horrenbestez, edari alkoholodunen zenbait bidetako publizitateari –horien artean, kanpoko publizitateari– buruz dagoen erregulazioa autonomia erkidegoetako arauetan dago.

Legedia autonomikoak, zabaltasun eta zehaztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, ezarri ditu adingabeei zuzendutako edari alkoholodunen publi-

zitatearen debekua eta mugak, zenbait bidetan (gazteentzako aldizkariak, telebista, irratia eta abar). Esate baterako, Adingabeei buruzko Kanariar Uhartetako otsailaren 7ko 1/1997 Legeak honako artikulua jaso zuen: “38. artikulua. Debekatutako publizitatea. Debekatuta dago, bai adingabeentzako argitalpenetan, bai ikus-entzunezko hedabideetan, haurrak bereziki babestu beharreko ordu-tarteetan, edari alkoholodunen publizitatea...” Baina txostenaren atal honetan ez dugu haren aipamena eginen, zeren eta, berriz diogu, txosten berezi hau berariaz eta soilik aztertzen baitu kanpoko publizitatea. Hori dela eta, kanpoko publizitate horri buruzko arauak baizik ez ditugu deskribatuko.

Era askotakoa da edari alkoholodunen kanpoko publizitatearen lege-tratamendua. Autonomia erkidegoetako zenbait legek ez dute hura jasotzen. Beste batzuek, berriz, edari alkoholodunen kanpoko publizitatea in extenso debekatzen dute. Azkenik, bi legetan, graduazio handieneko edari alkoholodunen kanpoko publizitaterako debekuak jarri besterik ez da egiten.

Honakoak dira debekuak edo mugak ezartzen dituzten autonomia erkidegoetako legek:

– Kataluniako uztailaren 25eko 20/1985 Legea, mendetasuna sor dezaketen substantzien arloko prebentzioari eta laguntzari buruzkoa. 19. artikuluan, hogeita hiru gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen publizitatea debekatzen du kaleetan, plazetan, parkeetan, errepideetan eta gainerako bide publikoetan, hesietan, paneletan, seinaleetan nahiz kanpoko publizitaterako gainerako euskarrietan.

– Gaztela eta Leongo martxoaren 29ko 4/1994 Legea, drogamenpekotasuna dutenentzako prebentzio, laguntza eta gizarteratze neurriei buruzkoa. Lege hori martxoaren 7ko 3/2007 Legeaz aldatu zen. Dazkan 21 artikuluetan, berariaz debekatzen du edari alkoholodunen zuzeneko eta zeharkako publizitatea adingabeak joaten direneko ikastetxeen sarreratik lerro zuzenean ehun metro baino distantzia txikiagoan dauden bide, eremu eta esparru publikoetan edo haietatik nabarmen ikusgarri dauden tokietan.

– Extremadurako apirilaren 10eko 4/1997 Legea, edari alkoholodunen adingabeentzako salmentari eta publizitateari aurrea hartzeko eta haiek kontrolatzeko neurriei buruzkoa. 15. artikuluan, hogeita hiru gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen publizitatea debekatzen du kaleetan, plazetan, parkeetan, errepideetan eta gainerako bide publikoetan, hesietan, seinaleetan nahiz kanpoko publizitaterako gainerako euskarrietan.

– Kantabriako urriaren 6ko 5/1997 Legea, drogamenpeketasunaren arloko prebentzior, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa. 21. eta 23. artikuluetan debekatzen du edari alkoholodunen publizitatea zuzenean nahiz zeharka egitea, besteak beste, bide publikoan, salbu eta terrazetan, mahaitxoetan edo kasuko udal ordenantzaren bitartez arauturiko herriko jai-egunetan.

– Euskadiko ekainaren 25eko 18/1998 Legea, Drogamenpekoen alorreko aurre-hartze, laguntza eta birgizarteratzeari buruzkoa. 15. artikuluan edari alkoholodunen kanpoko publizitatea debekatzen du. Halakotzat hartzen du irudiaren nahiz soinuaren bidez erabilera orokorreko edo eremu zabaleko esparruetan dauden edo dabiltzan pertsonen arreta erakartzen duena, alde batera utzita legez baimenduta dauden ekoizpen- eta salmenta-guneak adierazteko seinaleak; eta horietan ere legean finkatutako muga batzuen murriztapenak egonen dira.

– Kanariar Uharteetako uztailaren 22ko 9/1998 Legea, Drogamenpeketasunaren arloko prebentzior, laguntzari eta gizarteratzeari buruzkoa. 19. artikuluan debekatzen du edari alkoholodunen publizitatea zuzenean nahiz zeharka egitea, besteak beste, bide publikoan, salbu eta terrazetan, mahaitxoetan edo kasuko udal ordenantzaren bitartez arauturiko jai-egunetan.

– Errioxako urriaren 17ko 5/2001 Legea, drogamenpeketasuneiei eta beste adikzio batzuei buruzkoa. 31. artikuluan edari alkoholodunen kanpoko publizitatea debekatzen du. Kanpoko publizitateztat hartzen du irudiaren nahiz soinuaren bidez erabilera orokorreko edo eremu zabaleko esparruetan dauden edo dabiltzan pertsonen arreta erakartzen duena, alde batera utzita legez baimenduta dauden ekoizpen- eta salmenta-guneak adierazteko seinaleak. Dena den, horietan ere legean finkatutako muga batzuen murriztapenak egonen dira.

– Madrilgo ekainaren 27ko 5/2002 Legea, drogamenpeketasuneiei eta bestelako adikzio-nahasteiei buruzkoa. 30.3. artikuluan debekatzen du edari alkoholodunen publizitatea zuzenean nahiz zeharka egitea, besteak beste, bide publikoan, salbu eta terrazetan, mahaitxoetan edo azoketako nahiz herriko jaietako egunetan edo antzekoetan; horiek, betiere, kasuko udal ordenantzaren bitartez araututa egonen dira. Bestalde, Haurren eta Nerabeen Eskubideen Bermeei buruzko martxoaren 18ko 6/1995 Legeak, 38. artikuluan, ezartzen du Madrilgo Erkidegoko Administrazioak begiratuko duela betetzen ote diren edari alkoholodunen eta tabakorearen publizitateari buruzko debekuak eta mugak, drogamenpeketasuneiei buruzko erkidegoko legeetan ezarrirakoak.

– Valentziako apirilaren 1eko 1/2003 Legegintzazko Dekretua, Drogamenpeketasuneiei eta bestelako adikzio-nahasteiei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena. 18. artikuluan debekatzen du edari alkoholodunen publizitatea zuzenean nahiz zeharka egitea, besteak beste, bide publikoan, salbu eta hartan behar bezala baimenduta dauden tokietan, edo kasuko udal ordenantzaren bitartez arauturiko herriko nahiz tokiko jai-egunetan. Era berean, debekatzen du hemezortzi gradu zentesimal baino gehiagoko edari alkoholodunak sartzea autobide eta autobietako zerbitzu-gune edo atsedeen-guneetan eta gasolindegietan. Gainera, 16. artikuluan debekatzen du bide publikoan edari alkoholodunen zuzeneko nahiz zeharkako publizitatea egitea, publizitate-iragarkiaren eta administrazio publikoetako egoitzen, ikastetxeen, osasun zerbitzuen, zerbitzu sozio-sanitarioen eta gizarte zerbitzuen, ikastetxeen, eta gehien bat adingabeentzakoak diren gune eta ikuskizunen artean 200 metro baino gutxiagoko distantzia dagoenean, lerro zuzenean neurtuta.

Aipatutako autonomia erkidegoetako legedia ikusita, azpimarratzekoa da, irakurleak jada erreparatuko zion bezala, edari alkoholodunen kanpoko publizitaterako ezartzen diren mugak edo debekuak, gehienak drogamenpeketasunaren prebentziorako legeetan jasota daudenez, populazio orokorrarako pentsatuta daudela, eta ez berariaz adingabeentzat.

Orobat, nabarmentzekoa da autonomia erkidegoetako azaldutako lege gehien-gehienetan era guztietako edari alkoholodunen zuzeneko eta zeharkako kanpoko publizitatea –bide eta eremu publikoetan– debekatzearen alde egiten dela nabarmen, alde batera utzita terrazetan eta mahaitxoetan jartzen dena eta herriko jai-egunetan jar daitekeena. Bi autonomia erkidegok baizik (Katalunia eta Extremadura) ez dute egiten alkohol-graduazio jakin bateko edarien kanpoko publizitatea debekatzearen alde, eta 23 gradu zentesimaletan jartzen dute muga.

3. LEGEZ EZARRITAKO DEBEKUEN BERRESPEN JUDIZIALA

Auzitegiek aukera izan dute aipatu legeetako batzuei buruz iritzia emateko; zehazki Kataluniako eta Madrilgo erkidegoetako legediari buruz. Eta guztiz berretsi dute edari alkoholodunen kanpoko publizitaterako ezartzen diren debekuen legeztatuna.

Europako Erkidegoetako Auzitegiak (Osoko Bilkurak), 1991ko uztailaren 25eko epaian (TJCE/1991/251) Mendetasuna sor dezaketen substantzien arloko prebentziorako eta laguntzara-

ko Kataluniako uztailaren 25eko 20/1985 Legea aztertu zuen, hogeita hiru gradu zentesimal baino gehiagoko edari alkoholduen kanpoko publizitatearen debekuari dagokionez, eta ondorioztatu zuen pertsonen osasuna babesteko neurri proportzionala dela; horrenbestez, ez dago Europar Batzordearen 28. eta 30. artikuluen aurka, zerbitzuak libre emateari eta estatukideen arteko inportazioari eta esportazioari murriztapen kuantitatiboak jartzeko debekuari dagokienean.

Drogamenpekotasunei eta Bestelako Adikzio-nahastei buruzko Madrilgo ekainaren 27ko 5/2002 Legean jasotako edari alkoholduen kanpoko publizitatearen debekua dela eta, Madrilgo Erkidegoko lehen auzialdiko epaitegi batzuek emaniko epai batzuetan deklaratu zen lege kanpoko zela Madrilgo kaleetan edari alkoholduen publizitatea egitea –hesietan, markesinetan nahiz kanpoko publizitaterako bestelako euskarrietan–. Epaitegien erabaki horiek Madrilgo Probintzia Auzitegiko 2005eko martxoaren 22ko eta 2006ko irailaren 25eko epaietan (AC/2005/420 eta JUR/2006/268882) berretsi dira, publizitatea lege kanpoko dela deklaratzeko baitute, lege debekata egoteagatik edari alkoholduen iragarkiak jartzea Madrilgo Erkidegoko bide publikoetako publizitate-hesietan eta markesinetan. Antzeko zerbitu jasota dago Madrilgo Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2006ko azaroaren 16ko epaian.

4. FORU LEGEDIA

Nafarroako Foru Komunitateko antolamendu juridikoan, bi foru lege daude zuzenean edo zeharka adingabeen edari alkoholduen kontsumoaren prebentzioa –eta, horrenbestez, edari alkoholduen publizitateari eta adingabeengan duen eraginari dagokiona– ezartzen edo arautzen dutenak. Honakoak dira, hain zuzen ere: martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea, alkoholdu edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzkoa, eta abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa, bai eta hura garatzeko berriki, urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bitartez, onetsi den erregelamendua ere.

Bere helburuari eta edukiari erreparatuta, Alkoholdu edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea, zalantzarik gabe, lege aurreratua eta aitzindaria da. Hala eta guztiz ere, agian horregatik beragatik, soila da edukiei dagokienez. Artikulu bakarra, seigarrena, erabiltzen du aldizkako argitalpenetan, irrati eta telebista programetan, kirol-

hezkuntza- eta osasun-instalazioetan, zine aretoetan eta abarretan edari alkoholduen publizitateari mugak jartzeko nahiz publizitate hori debekatzeko. Baina artikulu bakar horrek ez du kanpoko publizitatea jasotzen eta, horrenbestez, ez du inongo mugarik edo debekurik ezartzen bide zehatz horretan edari alkoholduen publizitatea egiteko.

Bestalde, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak ez du inongo agindurik ezartzen zuzenean edari alkoholduen publizitatea arautzeko aukeran dauden bideetatik bakarrean ere. Publizitateari buruz egiten duen aipamen bakarra 19. artikuluan dago, hain zuzen ere adingabeek informazioarako duten eskubideari buruzkoan. Izan ere, haren hirugarren idatz-zatian ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek begiratuko dutela Foru Komunitatean adingabeentzat debeku diren jarduerak –esate baterako edari alkoholduen kontsumoa– sustatzen dituzten iragarkietan adingabeak ezin erabiltzea.

Urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bidez hura garatzeko onetsi zen erregelamenduan, berariaz publizitateari buruzkoa den artikulu bat topatuko dugu. Izan ere, 16. artikuluan, “Publizitatea” izenburua daramanean, ezartzen du, alde batetik, administrazio publikoak arduratuko direla publizitateak adingabeei kalte moral edo fisikorik egin ez diezaien eta arloko berariazko legeak errespetatu daitezkeen; eta, bestalde batetik dio administrazio publikoek ez dutela sustatuko adingabeek debeku dituzten jarduerak edo produktu, ondasun eta zerbitzuen kontsumoa.

Edari alkoholduen kanpoko publizitatea zuzenean eta berariaz arautzen ez dituzten arau horietatik kanpo, ezer ez dago ezarrita horri buruz Nafarroan.

Nabarmendu beharra dago nolako kontrastea dagoen batetik gabezia horren eta bestetik alkoholetik kaltegarria izateagatik hain hurbil dagoen beste substantzia baten, tabakoaren, Nafarroako erregulazioaren artean. Izan ere, Tabako kontsumoaren prebentzioari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legeak toki zabala eskaintzen dio tabakoaren publizitateari buruzko debekuak eta mugak ezartzeari. 17. artikuluan dio honakoa ulertzen dela publizitatez, foru legearen ondorioetarako: pertsona fisiko edo juridiko batek, publiko zein pribatu, merkataritzan, eskulangintzan edo edozein lanbidetan jardutean, tabakoaren edozein produkturen zuzeneko edo zeharkako zabalkunderako eginiko komunikazio mota oro. Ondoren, berariaz debekatu du Foru Komunitatean tabako-produktuen merkataritza sustapena egitea,

zuzenean nahiz zeharka, eta zehazten du ezin dela publizitaterik nahiz edo beste edozein motatako merkataritza komunikaziorik paratu bide publikoetako hesietan eta garraio publikoko zerbitzueta-ko geltokietan.

IV. ONDORIOAK

Gaur egun Europako gazteei –eta, horrenbestez, Nafarroako gazteei– bizi-egokitu zaien gizarte kontsumista, hedonista eta lehiakorrek sustatu eta erraztu egiten du adingabeek alkohol-dun edariak kontsumitzea. Kontsumo hori, batzuetan, edari alkohol-dun buruz egiten den kanpoko publizitateak probokatzeko edo batzuetan errazten du, baimenduta dagoen lurraldeetan eta haien artean, beraz, Nafarroan. Hori dela eta, haren eragin negatiboari kontrapuntua jartzeko, beharrezkoa da botere publikoek adingabeek alkohola ez kontsumitzeko prebentzio politikak bultzatzea, edari alkohol-dunen publizitateari buruzko lege-debekuak kanpoko publizitatearen arloa ere zabalduz.

Aipatutako foru legediaren aurrean, ondorioztatu beharra dago Nafarroan, gainerako autonomia erkidego gehienetan gertatzen denaz bestera, ez dagoela edari alkohol-dunen kanpoko publizitatea debekatzeko edo mugatzen duen araurik. Horrenbestez, publizitatearen teknika edo bide horren bitartez, Nafarroan, arazorik gabe, edozein gradutako edari alkohol-dunen zuzeneko publizitatea egin daiteke. Eta, berariaz adingabeei zuzenduta ez badago ere, horrek zalantzarik gabe nerabeengan eragin handia izan dezake. Hori dela eta, ondorioztatu beharra dago publizitate bide horri dagokionez Nafarroan bizi diren adingabeek guztiz babestu gabe daudela.

Laburbilduz, foru legediak edari alkohol-dunen kanpoko publizitatea dela-eta ageri duen permissibitateak oso gaizki uztartzen da adingabeek edari alkohol-dunen kontsumoa estimulatzen duen publizitate-mezurik ez jasotzeko daukaten eskubideare-

kin. Horrenbestez, erakunde honen irizpidearen arabera, Adingabeen edari alkohol-dunen kontsumoari aurrea hartu eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea gaurkotu eta perfektionatu beharra dago, eragozteko kanpoko publizitatea erabil dadin hain zuzen ere adingabeek edari alkohol-dunak edan ditzaten bultzatzeko bide gisa.

V. UKITUTAKO NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUEN ENTZUNALDIA

Txosten hau Osasun Departamentura, Familia, Gazteria Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentura eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorri zen, aldezturik ezagun zezaten, hain zuzen ere egokitzen jotzen zitezkeen alegazioak eta iradokizunak egin ahal izateko behin betiko testua egin aurretik. Emandako epea iraganda, departamentu horiek ez dute inongo iradokizun edo proposamenik egin.

VI. IRADOKIZUNA

Aurreko guztian oinarrituta, erakunde honek Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari iradokitzen die Adingabeen edari alkohol-dun kontsumoari aurrea hartu eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legearen aldaketa susta dezaten, edari alkohol-dunen kanpoko publizitatea debekatzeko; hau da, edari alkohol-dunen zuzeneko eta zeharkako publizitatea egitea bide eta espazio publikoetan, bi kasutan izan ezik:

– Legez baimendutako ekoizpen eta salmenta guneetan.

– Edariak kontsumitzeko lokaletako terraza eta mahaitxoetan, edo kasuko udal ordenantzaren bitartez arauturiko herriko jai-egunetan.

Bi kasu berezi horietako bakarrean ere, ez litzateke onartu beharko alkoholean 23^o baino gehiago duten edarien kanpoko publizitaterik.

